

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Zuzentaraua: 2008/101/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2008ko azaroaren 19koa, 2003/87/EE Zuzentaraua aldatzekoa, berotegi-efektuko gasen isuri-eskubideak salerosteko Erkidegoko araubidean hegazkintza-jarduerak sartzeko

Ondoko itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiria du.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DIRECTIVA 2008/101/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 19 de noviembre de 2008, por la que se modifica la Directiva 2003/87/CE con el fin de incluir las actividades de aviación en el régimen comunitario de comercio de derechos de emisión de gases de efecto invernadero» (*Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 8/3, 2008/01/13koa*)»

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2008/101/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena

2008ko azaroaren 19koa

2003/87/EE Zuzentaraua aldatzekoa, berotegi-efektuko gasen isuri-eskubideak salerosteko Erkidegoko araubidean hegazkintza-jarduerak sartzeko

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzekeo Tratatua eta, bereziki, haren 175. artikuluko 1. paragrafoa aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute ⁽¹⁾,

Eskualdeetako Komitearen irizpena aztertu dute ⁽²⁾,

Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu diote ⁽³⁾,

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/87/EE Zuzentaruak, 2003ko urriaren 13koak, Erkidegoan berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideak salerosteko erregelamendua xedatzen duenak ⁽⁴⁾, erregelamendu bat zehaztu zuen berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideak salerosteko Erkidegoan, gas horien isurien murrizketa sustatzeko, modu errentagarrian kostu-eraginkortasunari dagokionez, eta ekonomikoki eraginkorra izateko moduan.

(2) Kontseiluaren 94/69/EE Erabakiaren ⁽⁵⁾ bidez Europako Erkidegoaren izenean onartutako Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmenaren azken helburua da negutegi-efektuko gasen atmosferako kontzentrazioa egonkortzea, klima-sisteman eragin antropogeno arriskutsurik ez izateko.

(3) Europako Kontseiluak, 2007ko martxoaren 8 eta 9an, Bruselan bilduta, munduko urteko batez besteko tenperatura gainazalean, industriaurreko garaikoarekin alderatuz, 2 °C baino gehiago ez igotzeko helburu estrategikoaren garrantzia azpimarratu zuen. Klima Aldaketari buruzko Gobernuarteko Adituen Taldeak (IPCC) laugarren ebaluazio-txostenean jakinarazitako azken emaitza zientifikoen arabera, argi eta garbi ikusten da klima-aldaketaren eragin negatiboak gero eta larriagoak direla ekosistemarako, elikagaiak ekoizteko, eta garapen iraunkorra eta Milurtekoko Garapen Helburuak lortzeko, bai eta giza osasunerako eta segurtasunerako ere.

2 °C-ren helburuari eustekak esan nahi du negutegi-efektuko gasen kontzentrazioak atmosferan 450 ppmv CO₂ baliokide ingurukoa izan behar duela. Horretarako, negutegi-efektuko gasen isuriek maximora iritsi behar dute hurrengo 10 eta 15 urte artean, eta

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1990eko mailekin alderatuz gero, isurien murrizketa handiak egin behar dira, % 50ekoak gutxienez, 2050erako.

Europa energia-efizientzia handiko ekonomia eta negutegi-efektuko gasen isuri gutxikoa bihurtzeko Europar Batasunaren konpromisoa nabarmendu zuen Europako Kontseiluak. Eta, 2012. urtearen ondoren, erabateko mundu-akordio bat lortu arte, 1990. urtearekin alderatuta negutegi-efektuko gasen isuriak gutxienez % 20 murrizteko konpromiso sendo eta independentea adierazi zuen. Konpromiso horri dagokionez, hegazkingintzako negutegi-efektuko gasen isuriak mugatzea ekarpen garrantzitsua da.

(5) Europako Kontseiluak Europar Batasunaren konpromisoa nabarmendu zuen, 2012tik aurrera negutegi-efektuko gasen isuriak murrizteko akordio global eta oso baten bidez, klima-aldaketaren erronkei aurre egiteko erantzun eraginkor, efiziente eta bidezkoa lortzeko.

1990eko mailekin alderatuz gero, 2020rako negutegi-efektuko gasen isuriak % 30 murriztea onartu zuen, 2012tik aurrerako mundu-akordio oso bat lortzen laguntzeko, betiere beste herrialde garatu batzuek gasen isurien antzeko murrizketak egingo balituzte eta garapen bidean dauden artean ekonomia aurreratuena dutenek beren erantzukizunen eta gaitasunen arabera dagokien ekarpena egingo balute. Tenperaturaren igoera orokorra 2 °C-ra mugatzeko helburua lortzeko, Europar Batasunak aurrea hartzen jarraitzen du nazioarteko akordio handi bat lortzeko negoziazioan, eta Balin 2007ko abenduan egindako Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmenaren (KANBEH) Aldeen Konferentzian egindako aurrerapenek lanean jarraitzeko adorea ematen diote. Europar Batasuna saiatuko da akordio orokor horretan hegazkingintzako negutegi-efektuko gasen isuriak murrizteko neurriak sar daitezten, eta, hala izanez gero, Batzordeak ebaluatu beharko du zer aldaketa sartu behar diren zuzentarau honetan, aireontzi-operadoreei aplikatzen zaien neurrian.

(6) 2007ko otsailaren 14an, Europako Parlamentuak klima-aldaketari buruzko ebazpen bat onartu zuen ⁽⁶⁾. Munduko batez besteko tenperatura industriaurreko garaikoa baino 2 °C handiagoa izatera mugatzeari buruzkoa da ebazpen hori, eta, gainera, negoziazioetan buru izateari euts diezaion eskatzen dio Europari, klima-aldaketari buruzko nazioarteko esparru bat ezartzeko, 2012tik aurrera, eta nazioarteko kideekin egin beharreko etorkizuneko elkarriketetan anbizioa izan dezala. Horrez gain, nabarmentzen du herrialde industrializatu guztiek gasen isuriak % 30 murriztu behar dituztela 2020rako, 1990eko isurien mailekin alderatuz, 2050erako % 60 eta % 80 arteko murrizketa lortzeko.

(7) KANBEHk klima-aldaketari aurre egiteko neurriak dituzten programa nazionalak edo eskualdekoak egitera eta aplikatzera behartzen ditu aldeak.

(8) KANBEHren Kiotoko Protokoloak, Kontseiluaren 2002/358/EE Erabakiaren bidez Europako Erkidegoaren izenean onartuak ⁽⁷⁾, Montrealeko Protokoloak kontrolatzen ez dituen negutegi-efektuko gasen isuriak, aire-garraioko erregaiek sortuak, mugatzen edo murrizten saiatzeko eskatzen die herrialde garatuei, Hegazkineria Zibilaren Nazioarteko Erakundearekin (HEZINE) batera lan eginez.

(9) 1944ko Chicagoko nazioarteko hegazkineria zibilari buruzko hitzarmenean (Chicagoko Hitzarmena) Erkidegoa alderdi kontratugilea ez den arren, estatu kide

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

guztiak badira, eta, gainera, HEZINEko kide ere badira. Estatu kideek eta HEZINEko kide diren beste estatu batzuek neurriak garatzeko lanean dihardute, merkatu-tresnak ere erabiliz, hegazkingintzak klima-aldaketan duen eraginari aurre egiteko.

Ingurumenaren Babesari eta Hegazkingintzari buruzko HEZINEko Batzordearen seigarren bileran, onartu zen, hegazkingintzarako isurien berariazko araubide baten ideia, HEZINEk babestutako tresna juridiko berri batean oinarritua, ez zela behar bezain erakargarria, eta, beraz, bertan behera utzi behar zela. Horren ondorioz, HEZINEk 2004ko irailean egindako 35. Biltzarrean, A35-5 ebazpenean, ez zuen tresna juridiko berririk proposatu. Aitzitik, isuri-eskubideen merkataritza irekiaren alde egin zuen, eta estatuek nazioarteko hegazkingintzaren isuriak beren isuri-eskubideen merkataritza-araubideetan sartzeko aukeraren alde. HEZINEk 2007ko irailean egindako 36. Biltzarrean, A36-22 Eranskinaren L gehigarriak eskatzen die estatu kontratugileei ez aplikatzeko beste estatu kontratugile batzuen aireontzi-operadoreen isurien merkataritza-sistemarik, estatu horien artean adostutako oinarriren bat izan ezean. Chicagoko Hitzarmenak espresuki onartzen du alde kontratugile bakoitzak duela eskubidea bere legeak eta erregelamenduak aplikatzeko, bereizketarik gabe, estatu guztietako aireontziei. Hori kontuan hartuta, Europako Erkidegoko estatu kideek eta Europako beste 15 estatuk erreserba bat formulatu zioten ebazpen horri, eta, Chicagoko Hitzarmena betetz, zerbitzuak beren lurraldearen barruan ematen dituzten edo lurraldea jatorri edo helburu duten estatu guztietako aireontzi-operadorei merkatuan oinarritutako neurriak ezartzeko eta aplikatzeko eskubidea erreserbatu zuten.

(10) Ingurumen-gaietako Erkidegoko ekintzako seigarren programaren arabera, Europako Parlamentuko eta Kontseiluko ⁽⁸⁾ 1600/2002/EE erabakian jaso, Erkidegoak hegazkingintzako negutegi-efektuko gasen isuriak murrizteko berariazko neurriak identifikatu eta aplikatu behar zituen, HEZINEk ez balu horrelako neurririk hartuko, beranduenez ere 2002an. 2002ko urriko, 2003ko abendu eta 2004ko urriko ondorioetan, Kontseiluak behin eta berriz eskatu zion Batzordeari klimak nazioarteko aire-garraioan duen eragina murrizteko neurriak proposatzeko.

(11) Politikak eta neurriak Erkidegoko ekonomiako sektore guztiei aplikatu behar zaizkie estatu kideetan zein Erkidegoan, beharrezko murrizketak lortzeko.

Hegazkingintzak klima-aldaketan duen eraginak gaur egungo erritmoan hazten jarraitzen badu, klima-aldaketaren aurka beste sektore batzuetan lortutako murrizketak neutralizatuko ditu, neurri handi batean.

(12) Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari, eta Eskualdeetako Komiteari bidalitako 2005eko irailaren 27ko Komunikazioan – “Hegazkingintzak klima-aldaketan duen eraginaren murrizketa”–, hegazkingintzak kliman duen eragina murrizteko estrategia bat zirriboratu zuen Batzordeak. Neurri ugari proposatu ziren. Estrategiaren gakoa zen hegazkingintza negutegi-efektuko gasen isuri-eskubideen Erkidegoko merkataritza-araubidean sartzea, eta hegazkingintzari buruzko lantalde aldean sartzea, Klima Aldaketari buruzko Europako Programaren bigarren fasean, hegazkingintza Erkidegoko araubidean nola sartu aztertze. 2005eko abenduaren 2ko Erabakietan, Kontseiluak onartu zuen, ekonomiaren eta ingurumenaren ikuspegitik, hegazkingintza Erkidegoko araubidean

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

sartzea zela aurrera egiteko modurik onena, eta horren haritik, Batzordeari eskatu zion arau-proposamen bat aurkez zezan 2006. urtearen bukaerarako. 2006ko uztailaren 4ko Erabakian –hegazkingintzak klima-aldaketan duen eragina murrizteari buruzkoan⁹–, Europako Parlamentuak aitortu zuen isuri-eskubideen merkataritzak zeregin garrantzitsua izan dezakeela, hegazkingintzak kliman duen eraginari aurre egiteko neurrien multzo zehatz baten zati gisa, betiere behar bezala antolatuta badago.

(13) Neurrien multzo zehatz batek neurri operatiboak eta teknologikoak izan behar ditu. Aire-zirkulazioaren kudeaketa hobetu egin da Europako Zeru Bakarra eta SESAR programei esker, eta horrek energia-efizientzia orokorra % 12raino igotzea ekar dezake. Teknologia berrien ikerketek, aireontzien energia-efizientzia hobetzeko metodoak barne, hegazkingintzako isuriak are gehiago murrizten lagun dezakete.

(14) 2003/87/EE Zuzentarauan zuzentarau honen bidez sartutako aldaketan helburua da hegazkingintzak klima-aldaketan duen eragina murriztea. Horretarako, sektore horretako jardueren isuriak Erkidegoko araubidean sartu behar dira.

(15) Aireontzi-operadoreek egiten dute kontrolik zuzenena aireontzi-motarekiko eta operatzeko modurekiko, eta, horregatik, zuzentarau honek adierazitako obligazioak betetzeko ardura dute, jarraipen-plana prestatzeko eta horren arabera isuriak zaindu eta horien berri emateko obligazioa barne. Aireontziko operadoreak bere burua identifika dezake HEZINEn identifikazio-kodea erabiliz edo hegaldiaren identifikaziorako erabiltzen den beste edozein kode erabiliz. Aireontziko operadorearen izena ezezaguna bada, aireontziaren jabea hartuko da operadoretzat, aireontziaren operadorea nor den frogatzen ez bada behintzat.

(16) Lehiakideen distortsiorik ez izateko eta ingurumen-eraginkortasuna hobetzeko, Erkidegoko aerodromoetatik abiatu edo haietara iristen diren hegaldi guztien isuriak sartu behar dira 2012. urtetik aurrera.

(17) Erkidegoak eta haren kideek lanean jarraitu behar dute, hegazkingintzak sortutako negutegi-efektuko gasen isuriak murrizteko neurri orokorrei buruzko akordio bat lortzeko. Erkidegoko araubidea munduko isurien merkataritzako eredu gisa erabil daiteke. Erkidegoak eta estatu kideek hirugarren aldeekin harremanetan jarraitu behar dute zuzentarau hau aplikatzen den artean, eta hirugarren herrialdeei neurri baliokideak hartzeko eskatu. Erkidegoko hegaldien klima-eragina murrizteko gutxienez zuzentarau honen ingurumen-eragin bera duten neurriak hartzen baditu hirugarren herrialde batek, Erkidegoko araubidearen eta hirugarren herrialdearen neurrien elkarreraginerako dauden aukerak aztertu beharko ditu Batzordeak, hirugarren herrialde horrekin kontsultatu ondoren. Hirugarren herrialdeetan garapen-fasean dauden isurien merkataritzako araubideak eta Erkidegoko araubidea elkarreragin optimoa sortzen hasi dira, hegazkingintza sartzeari dagokionez. Erkidegoko sistema beste merkataritza-araubide batzuekin lotzeko aldebiko akordioak, araubide bateratua lortzeko edo bi erregelamendu ez izateko neurri baliokideak, aurrerapausoak izan daitezke akordio orokorra erdiesteko.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Aldebiko akordio horiek izenpetuko balira, Batzordeak Erkidegoko araubidean sartuta dauden aire-jardueren motak alda ditzake, aireontzi-operadoreei igorri beharreko isuri-eskubideen guztizko kantitatearen bidezko doikuntzak barne.

(18) “Lege hobeak egitea” printzipioaren arabera, hegaldi batzuk Erkidegoko araubidetik kanpo utzi behar dira. Administrazio-karga neurrigaberik egon ez dadin, lau hilabeteko –ondo- ondoko– hiru periodotan periodoko 243 hegaldi baino gutxiago egiten dituzten aire-garraio komertzialeko operadoreak Erkidegoko araubidetik kanpo utzi behar dira. Hori onuragarria litzateke Erkidegoko araubidearen esparruan zerbitzu mugatuak ematen dituzten airelineentzat, garapen bidean dauden herrialdeetako airelineak barne.

(19) Hegazkingintzak munduko klimari eragiten dio, karbono dioxidoa, nitrogeno oxidoak, ur-lurrina, eta sulfato eta kedar partikulak isurtzen dituelako. IPCCk kalkulatu zuen hegazkingintzaren guztizko eragina kliman, gaur egun, iraganean karbono dioxidoaren isuriek eragindakoa halako bi eta lau artekoa dela. Erkidegoan egindako azken azterketen arabera, hegazkingintzak kliman duen guztizko eragina karbono dioxidoarena halako bi ingurukoa da.

Dena den, kalkulu horietan ez da kontuan hartu zirruen eragina, ez baita behar bezala ezagutzen gaur egun. Tratatuaren 174. artikuluko 2. paragrafoaren arabera, Erkidegoko ingurumen-politikaren oinarriak arreta-printzipioan oinarritu behar du. Zientzia-aurrerapenak iritsi artean, hegazkingintzaren eragin guztiak izan behar dira kontuan, ahal den neurrian. Nitrogeno oxidoaren isuriak Batzordeak 2008an proposatuko dituen beste arau batzuetan landuko dira. Kondentsazio-lorratzei, zirruiei eta dagozkien indargabetze-neurriei buruzko ikerketa bultzatu behar da, neurri operatiboak eta teknikoak barne.

(20) Lehiakideen distorsiorik ez izateko, metodologia harmonizatu bat zehaztu behar da, eman beharreko eskubideen guztizko kantitatea zehazteko eta aireontzi-operadoreei eskubideak banatzeko. Eskubideen proportzio bat enkante bidez esleituko da, Batzordeak egin beharreko arauak betez. Isuri-eskubideen erreserba berezi bat sortu behar da, aireontzi-operadore berriak merkatuan sar daitezen bermatzeko eta egindako tona-kilometroen kopurua asko handitu dutenei laguntzeko. Komeni da isuri-eskubideak esleitzen jarraitzea jarduerak amaitzen dituzten aireontzi-operadoreei, doako eskubideak esleitzeko periodoa amaitu arte.

(21) Erkidegoko araubidean parte hartzen duten aireontzi-operadore guztiei doan emandako eskubideen proportzioa erabat harmonizatzea komeni da, aireontzi-operadoreek bidezko lehiakortasun-baldintzak izan ditzaten bermatzeko, kontuan hartuta aireontzi-operadore bakoitzak estatu kide bakar baten arauak bete behar dituela, jatorria edo helmuga Europar Batasunean duten operazio guztietan, eta EBren barruko operazioetan, eta, gainera, hirugarren herrialdeekiko aire-zerbitzuko aldebiko akordio ez baztertzailen xedapenak ere bete behar ditu.

(22) Giza jarduerak klima-aldaketan duten eragin orokorraren zati bat hegazkingintzari dagokio, eta aireontzietatik sortutako negutegi-efektuko gasen isuriaren ingurumen-eragina murriztu daiteke. Horretarako, Europar Batasunean eta hirugarren herrialdeetan klima-aldaketaren aurka borroka egiteko neurriak behar dira, eta ikerketa eta garapena finantzatu, batik bat aeronautikaren eta aire-garraioaren esparruan murrizteko eta

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

egokitzeko. Gastu publiko nazionalari buruzko erabakiak estatu kideei dagozkie, subsidiarotasun-printzipioarekin bat. Jarrera hori kontuan hartuta, isuri-eskubideen enkantean izandako diru-sarrerak (edo zenbateko baliokidea, estatu kideetako aurrekontu orokorren printzipioek hala eskatuz gero; esate baterako, batasuna eta unibertsaltasuna) honako hauetarako erabili behar dira: negutegi-efektuko gasen isuriak murrizteko, Europar Batasunean eta hirugarren herrialdeetan klima-aldaketaren eraginetara egokitzeko, murrizteko eta egokitzeko ikerketa eta garapena finantzatzeko, eta Erkidegoko araubidearen kudeaketaren gastuak ordaintzeko. Enkanteetako diru-sarrerak isuri gutxiko garraioetara bideratu behar dira. Enkanteetako diru-sarrerak honetarako erabili behar dira: energia-eraginkortasunerako eta energia berriztagarrietarako mundu funtsa, baso-soiltzearen aurkako neurriak eta garapen bidean dauden herrialdeen egokitzea finantzatzeko. Diru-sarreraren erabilerarekin lotutako zuzentarau honen xedapenek ez dute aurretik juzgatuko eskubideen enkanteetako diru-sarreraren erabilerari buruzko erabakirik, 2003/87/EE Zuzentarauaren berrikuspen orokorraren zentzu zabalenean.

(23) Enkanteetako diru-sarreraren erabilerari buruzko xedapenak Batzordeari jakinarazi behar zaizkio. Jakinarazpen horrek ez ditu estatu kideak salbuesten Tratatuaren 88. artikuluko 3. paragrafoan adierazitako –neurri nazional jakin batzuk jakinarazteko– obligaziotik. Tratatuaren 87. eta 88. artikuluen arabera garatu daitezkeen –estatuko laguntzei buruzko– etorkizuneko prozeduren emaitzak kontuan hartuta ulertu behar da zuzentarau hau.

(24) Erkidegoko araubidearen errentagarritasuna areagotzeko, komeni da proiektuetako jardueretan sortutako isurien murrizketa ziurtatuak (IMZ) eta isurien murrizketa-unitateak (IMU) erabiltzeko aukera izatea aireontzi-operadoreek, isuri-eskubideak entregatzeko obligazioa bete dezaten, muga harmonizatu bat dutela kontuan hartuta. IMZ eta IMUen erabilerak koherentea izan behar du zuzentarau honetan adierazitako merkataritza-araubidearen erabilera onartzeko irizpideekin. IMZ eta IMUak erabiltzeko estatu kideek zehaztutako ehunekoen batezbestekoa, Kiotoko Protokoloaren konpromisoaren lehen periodoan, % 15 ingurukoa da.

(25) Bruselan 2008ko martxoaren 13 eta 14an egindako Europako Kontseiluaren Ondorioetan onartu zen, merkatu lehiakorren testuinguru orokorrean, karbono-ihesen arriskua aztertu beharreko kezka bat dela eta premiaz ekin behar zaiola isurien merkataritzari buruzko zuzentarau berrian, negoziazioek huts egingo balute nazioarteko neurri egokiak hartu ahal izateko. Kontu horri aurre egiteko modu onena nazioarteko akordio bat lortzea da.

(26) Aireontzi-operadoreen administrazio-karga murrizteko, komeni da operadore bakoitza estatu kide baten mende egotea. Estatu kide bakoitzak arduratu behar du estatu kide horrek emandako ustiapen-lizentzia duten aireontzi-operadoreek, ustiapen-lizentziarik ez duten aireontzi-operadoreek, eta erreferentzia-urte bateko isuriak batik bat estatu kide horri esleitzeko modukoak izanik hirugarren herrialdeetatik datozen operadoreek zuzentarau honen eskakizunak bete ditzaten. Aireontzi-operadoreen batek ez baditu zuzentarau honen eskakizunak betetzen, eta kudeaketaren ardura duen estatu kidean aplikagarriak diren beste neurri batzuek ezin badute horiek bete daitezen bermatu, estatu kideek solidarioki jardun behar dute.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Beraz, kudeaketaren ardura duen estatu kideak eska dezake Batzordeak Erkidego-mailako ustiapen-debekua ezar diezaiola operadoreari, azken neurri gisa.

(27) Erkidegoko araubidearen kontabilizazio-sistemaren integritateari eusteko, eta kontuan hartuta nazioarteko hegazkingintzatik sortutako isuriak ez daudela oraindik estatu kideen konpromisoetan sartuta Kiotoko Protokoloaren esparruan, aireontzi-operadoreek isuri-eskubideak zuzentarau hau betez entregatzeko duten obligazioa betetzeko soilik erabil daitezke hegazkingintzari esleitutako isuri-eskubideak.

(28) Aireontzi-operadore guztiek tratu bera izango dutela bermatzeko, estatu kideek beren ardurapeko operadoreen kudeaketako arau harmonizatu batzuei eutsi behar diete, Batzordeak garatu beharreko berariazko jarraibideak betez.

(29) Erkidegoko araubidearen ingurumen-integritateari eusteko, aireontzi-operadoreek entregatutako unitateak isuriak aintzat hartzen dituzten negutegi-efektuko gasen murrizketaren helburuekiko soilik kontabilizatu behar dira.

(30) Aire Nabigazioaren Segurtasunerako Europako Erakundeak (Eurocontrol) zuzentarau honek jasotako obligazioak betetzeko laguntza-informazioa izan dezake estatu kideentzat eta Batzordearentzat.

(31) Isurien segimendu-, jakinarazpen- eta egiaztapen-gaietako Erkidegoko araubidearen xedapenak eta titularrei aplikatu dakizkiekeen zigorrak aireontzi-operadoreei ere aplikatu behar zaizkie.

(32) Komeni da Batzordeak 2003/87/EE Zuzentarauaren funtzionamendua berrikustea, hegazkingintzako jardueri dagokienez, zuzentarauaren aplikazioko esperientzia kontuan hartuta, eta, ondoren, Europako Parlamentuari eta Kontseiluari jakinaraztea.

(33) 2003/87/EE Zuzentarauaren funtzionamenduaren berrikuspenak, hegazkingintzako jardueri buruzkoak, kontuan izan behar du zer-nolako mendekotasun estrukturala duten hegazkingintzarekiko garraio bide alternatibo egokirik ez duten herrialdeek, eta, beraz, aire-garraioaren mende daude, neurri handi batean, eta turismo-sektoreak eragin handia du barne-produktu gordinen. Komeni da arretaz aztertzea Erkidegoko eskualde ultraperiferikoetako irisgarritasun- eta lehiakortasun-arazoak arintzeko edo ezabatzeko, Tratatuaren 299. artikuluan 2. paragrafoan jasotako moduan, bai eta zuzentarau honen aplikazioarekin lotutako zerbitzu publikoaren obligazioei buruzko arazoak ere.

(34) Gibraltarko aireportuari buruzko Ministro Deklarazioak –Kordoban onartua 2006ko irailaren 18an, Gibraltari buruzko elkarrizketa-foroaren lehen ministro-bileran– aireportuari buruz Londresen 1987ko abenduaren 2an egindako Deklarazio bateratua ordezkaturiko du, eta hori betetzeak 1987ko Deklarazioa betetzea dakar.

(35) Zuzentarau hau betetzeko beharrezko neurriak onartu behar dira, 1999ko ekainaren 28ko Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiari jarraiki; hau da, Batzordeari esleituriko eskumenak baliatzeko prozedurak ezartzen dituen erabakiari jarraiki ⁽¹⁰⁾.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(36) Komeni da, bereziki, Batzordeari eskumenak ematea, isuri-eskubideen –doan igortzeko obligaziorik gabeak– enkanterako neurriak hartzeko, aireontzi-operadore batzuen erreserba bereziaren funtzionamenduari buruzko eta eskaeren prozedurei buruzko arau zehatzak onartzeko, Batzordeak erabaki dezan aireontzi-operadore bati ustiapen-debekua jartzea, eta I. eranskinean zerrendatutako hegazkingintzako jarduerak aldatzeko, hirugarren herrialde batek hegazkingintzak klima-aldaketan duen eragina murrizteko neurriak sartzen baditu. Neurri horiek orokorrak eta zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldaraztekoak direnez gero (funtsezkoak ez diren elementu gehiagorekin ere osatu daitezke), 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluan agindutako kontrol-dun arautze-prozedura betez hartu behar dira.

(37) Estatu kideak ez dira gai zuzentarau honen helburuak behar bezala betetzeko, eta, haien neurriari eta ondorioei erreparatuta, hobeto lor daitezke Erkidego-mailan. Horregatik, Erkidegoak neurriak har ditzake, Tratatu 5. artikuluan zehaztutako subsidiarotasun-printzipioaren arabera. Artikulu horretan adierazitako heinekotasun-printzipioaren indarrez, zuzentarau honek helburu horiek lortzeko beharrezko neurriak besterik ez ditu hartzen.

(38) Instituzio arteko «Lege hobekak egitea» ⁽¹¹⁾ Akordioaren 34. puntuan arautzen denari jarraiki, estatu kide orok nork bere taula egin dezan sustatu nahi da, bai eta horiek argitara ditzaten ere, zuzentarau hau eta transposizio-neurriak bat nola datozen erakusteko, ahal den neurrian, hori onuragarria izango baita bai estatuentzat, bai Erkidegoarentzat.

(39) Beraz, egokia da 2003/87/EE Zuzentaraua aldatzea.

HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

2003/87/EE Zuzentarauaren aldaketak

2003/87/EE Zuzentaraua jarraian adierazten den moduan aldatuko da:

1) 1. artikuluaurrean, izenburu hau gehituko da:

"I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK".

2) 2. artikuluan, paragrafo hau gehituko da:

"3. Gibraltarko aireportuari zuzentarau hau aplikatzean, kontuan hartu behar dira lurralde horren subiranotasunari buruzko eztabaidan Espainiako erresumaren eta Erresuma Batuaren jarrera juridikoak."

3) 3. artikulua jarraian adierazi bezala aldatuko da:

2008/101/EE Zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 8/3, 2009/01/13koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

a) b) idatz-zatiaren ordezkari ondoko testu hau jarriko da:

“b) “isuria”: atmosferara negutegi-efektuko gasak askatzea instalazio bateko iturri batetik edo I. eranskinean, jarduerari dagozkion gas zehatzei buruzkoan, zerrendatutako hegazkingintzako jarduerari bat egiten duen aireontzi batetik ateratakoa;”;

b) Honako idatz-zatiak sartuko dira:

"o) "aireontzi-operadorea": I. eranskinean zerrendatutako hegazkingintzako jarduerari bat egiten ari den unean aireontzi batekin operatzen ari den pertsona, ez bada ezagutzen pertsona hori edo aireontziaren jabeak ez bada identifikatzen;

p) "aire-garraio komertzialeko operadorea": bidaiariak, korreoa edo zama garraiatzeko, ordainsari baten truk publikoari aire-zerbitzu erregularrak eta ez-erregularrak ematen dizkion operadorea.

q) "kudeaketaren ardura duen estatu kidea ": Erkidegoko araubidea kudeatzeko ardura duen estatu kidea, aireontzi-operadoreari dagokionez, 18 bis artikulua betez;

r) "esleitutako hegazkingintzako isuriak": I. eranskinean zerrendatutako hegazkingintzako jardueretan ageri diren hegaldi guztien isuriak, jatorria estatu kide bateko aerodromo batean dutenak eta hirugarren herrialde batetik aerodromo horretara iristen direnak;

s) "hegazkingintzako isuri historikoak": I. eranskinean zerrendatutako hegazkingintzako jardueraren bat egiten duten aireontziek 2004, 2005 eta 2006an egindako urteko isuri bidezbesteko aritmetikoa."

4) 3. artikulua ondoren, kapitulu hau gehituko da:

"II. KAPITULUA

HEGAZKINGINTZA

3 bis artikulua

Aplikazio-eremua

Kapitulu honetako xedapenak isuri-eskubideak esleitzeko eta emateko aplikatuko dira, I. eranskinean zerrendatutako hegazkingintzako jarduerari dagokienez.

3 ter artikulua

Hegazkingintzako jarduerak

Beranduenez ere 2009ko abuztuaren 2an, I. eranskinean zerrendatutako hegazkingintzako jardueren interpretazio xehatuari buruzko ildoak prestatuko ditu Batzordeak, 23. artikulua 2. paragrafoan jasotako erregelamenduaren prozedura betez.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3 quater artikulua

Isuri-eskubideen guztizko kantitatea hegazkingintzarako

1. 2012ko urtarrilaren 1etik 2012ko abenduaren 31ra bitartean, aireontzi-operadoreei esleituko zaien isuri-eskubideen guztizkoa hegazkingintzako isuri historikoen baturaren % 97 izango da.

2. 11. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako hirugarren periodorako, 2013ko urtarrilaren 1ean hasten denerako, eta 30. artikuluko 4. paragrafoan adierazitako berrikuspenaren ondoren zuzenketarik ez badago, hurrengo periodo bakoitzerako, aireontzi-operadoreei esleituko zaien isuri-eskubideen guztizkoa hegazkingintzako isuri historikoen % 95 bider periodoaren urte kopurua izango da.

Ehuneko hori zuzentarau honen berrikuspen orokorraren testuinguruan berrikusi ahal izango da.

3. Aireontzi-operadoreei esleituko zaien isuri-eskubideen guztizkoa berrikusiko du Batzordeak, 30. artikuluko 4. paragrafoan adierazitakoa betez.

4. Beranduenez 2009ko abuztuaren 2an, Batzordeak hegazkingintzako isuri historikoak erabakiko ditu, eskura dituzten datu onenak oinarri hartuta, benetako zirkulazioari buruzko informazioan oinarritutako kalkuluak barne. Erabaki hori 23. artikuluko 1. paragrafoan adierazitako Batzordean aztertuko da.

3 quinquies artikulua

Hegazkingintzarako isuri-eskubideen guztizko kantitatea enkante bidez esleitzeko metodoa

1. 3 quater artikuluko 1. paragrafoan adierazitako periodoan, isuri-eskubideen % 15 aterako da enkantean.

2. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, isuri-eskubideen % 15 aterako da enkantean. Ehuneko hori handitu daiteke; hori da, hain zuzen, zuzentarau honen berrikuspen orokorraren zati bat.

3. Erregelamendu bat prestatuko da, estatu kideek enkantean aterako dituzten isuri-eskubideen –doan emateko obligaziorik gabeak– aplikazio-xedapenei buruzkoa, artikuluko honen 1. eta 2. paragrafoetan adierazitakoa edo 3. artikuluko 8. paragrafoan adierazitakoa betez. Estatu kide bakoitzak periodo bakoitzean enkantean aterako duen isuri-eskubideen kopurua erreferentzia-urterako estatu kide guztiei hegazkingintzako isurietarako esleitutako zatiaren proportzionala izango da, eta 14. artikuluko 3. paragrafoaren arabera jakinarazi eta 15. artikuluko arabera egiaztatuko dira. 3 quater artikuluko 1. paragrafoan adierazitako periodorako, erreferentzia-urtea 2010a izango da, eta 3 quater artikuluan adierazitako hurrengo periodo bakoitzerako, erreferentzia-urtea enkantean adierazitako periodoaren hasiera baino 24 hilabete lehenago amaitzen den urtea izango da.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Neurri horren xedea zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzea edo zuzentaraia osatzea da, eta 23. artikuluko 3. paragrafoan jasotako kontrol-dun arautze-prozedura betez ezarriko da.

4. Isuri-eskubideen enkantean izandako diru-sarrerak zertan erabili behar diren estatu kideek erabaki behar dute. Diru-sarrera horiek Europar Batasunean eta hirugarren herrialdeetan klima-aldaketaren aurkako borrokarako erabili behar lirake; besteak beste, negutegi-efektuko gasen isuriak murrizteko, Europar Batasunean eta hirugarren herrialdeetan klima-aldaketaren eraginetara egokitzeko –batik bat garapen bidean dauden herrialdeetan–, murrizteko eta egokitzeko ikerketa eta garapena finantzatzeko –bereziki, aeronautikan eta aire-garraioan–, maila txikiko isuriak dituzten garraioen bidez isuriak murrizteko, eta Erkidegoko araubidearen kudeaketaren gastuak ordaintzeko. Enkanteko diru-sarrerak honetarako erabili behar dira: energia-eraginkortasunerako eta energia berriztagarrietarako mundu funtsa eta baso-soiltzearen aurkako neurriak finantzatzeko.

Estatu kideek Batzordeari jakinaraziko dizkiote paragrafo honen arabera erabakitako ekintzak.

5. Zuzentarau hau betez, Batzordeari jakinarazitako informazioak ez ditu salbuesten estatu kideak Tratatuaren 88. artikuluko 3. paragrafoan adierazitako jakinarazpen-obligaziotik.

3 sexies artikulua

Aireontzi-operadorei isuri-eskubideak esleitzea eta ematea

1. 3 quater artikuluan adierazitako periodo bakoitzerako, aireontzi-operadore bakoitzak isurien doako eskubideak esleitzea eska dezake. Eskaera egiteko, kudeaketaren ardura duen estatu kideko agintaritza eskudunari aurkeztu behar zaizkio erreferentzia-urtean aireontzi-operadore horrek egindako hegazkingintzako jardueri –I. eranskinen zerrendatutakoei– dagozkien tona-kilometroen datuak.

Paragrafo honi dagokionez, erreferentzia-urtea eskaeran adierazitako periodoaren hasiera baino 24 hilabete lehenago amaitzen den urtea izango da, IV. eta V. eranskinak betez, edo, 3 quater artikuluko 1. paragrafoan adierazitako periodoari dagokionez, alegia, 2010. urteari. Eskaerak dagokien periodoaren hasiera baino gutxienez hogeita bat hilabete lehenago aurkeztuko dira, edo, 3 quater artikuluko 1. paragrafoan adierazitako periodoari dagokionez, beranduenez 2011ko martxoaren 31n.

2. Gutxienez eskaeraren periodoaren hasiera baino hemezortzi hilabete lehenago, edo, 3 quater artikuluko 1. paragrafoan adierazitako periodoari dagokionez, beranduenez 2011ko ekainaren 30a baino lehenago, estatu kideek Batzordeari aurkeztuko dizkiote 1. paragrafoa betez jasotako eskaerak.

3. Gutxienez 3 quater artikuluko 2. paragrafoan adierazitako periodo bakoitza baino hamabost hilabete lehenago, edo, 3 quater artikuluko 1. paragrafoan adierazitako periodoari dagokionez, beranduenez 2011ko irailaren 30ean, Batzordeak erabaki bat hartuko du, alderdi hauek finkatzeko:

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

a) periodo horretarako esleituko diren isuri-eskubideen guztizko kantitatea, 3 quater artikuluari jarraiki;

b) periodo horretan enkantean atera beharreko isuri-eskubideen kantitatea, 3 quinquies artikuluari jarraiki;

c) aireontzi-operadoreentzako erreserba bereziko isuri-eskubideen kopurua periodo horretan, 3 quinquies artikulua 1. paragrafoan adierazitakoa betez;

d) periodo horretan doan eman beharreko isuri-eskubideen kopurua, a) idatz-zatiari dagokionez erabakita dauden isuri-eskubideetatik b) eta c) idatz-zatietan adierazitako isuri-eskubideen kopuruaren guztizko zenbatekoa kenduta, eta

e) 2. paragrafoan adierazitakoaren arabera Batzordeari eskaerak aurkeztu dizkioten aireontzi-operadoreei isuri-eskubideak doan esleitzeko erabiliko den erreferentzia-balioa.

e) idatz-zatian adierazitako erreferentzia-balioa, tona-kilometroko isuri-eskubidetan adierazia, kalkulatzeko, d) idatz-zatian adierazitako isuri-eskubideen kopurua 2. paragrafoaren arabera Batzordeari aurkeztutako eskaeretan ageri diren tona-kilometroen baturarekin zatitu behar da.

4. Batzordeak, 3. paragrafoa betez, erabakia hartzen duenetik hiru hilabeteko epean, kudeaketaren ardura duen estatu kide bakoitzak hauek kalkulatu eta argitaratuko ditu:

a) Batzordeari, 2. paragrafoan adierazitakoa betez, eskaera bat aurkeztu dion aireontzi-operadore bakoitzaren periodorako esleitutako isuri-eskubideen guztizkoa, honela kalkulatuta: eskaeran adierazitako tona-kilometroak bider 3. paragrafoko e) idatz-zatian zehaztutako erreferentzia balioa, eta

a) urte bakoitzerako aireontzi-operadore bakoitzari esleitutako isuri-eskubideak, honela kalkulaten direnak: periodo horretarako esleitutako isuri-eskubideen guztizkoa –a) idatz-zatia betez kalkulatua– zati aireontzi-operadorea I. eranskinean zerrendatutako hegazkingintza-jardueraren bat egiten ari den periodoaren urte kopurua.

5. Beranduenez 2012ko otsailaren 28an eta hurrengo urte bakoitzeko otsailaren 28an, kudeaketaren ardura duen estatu kideko agintaritzak eskudunak urte horretarako esleitu zaizkion isuri-eskubideen kopurua emango dio aireontzi-operadore bakoitzari, artikulua honek edo 3 septies artikulua dioenari jarraituz.

3 septies artikulua

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Erreserba berezia aireontzi-operadore batzuentzat

1. 3 quater artikulua 2. paragrafoan aurreikusitako periodoetako bakoitzean, esleitu beharreko isuri-eskubideen % 3 aireontzi-operadoreen erreserba berezi baterako izango da. Hauetarako:

a) 3 quater artikulua 2. paragrafoan aurreikusitako periodo batekin lotuta, 3 sexies artikulua 1. paragrafoaren arabera tona-kilometroen datuak emandako erreferentzia-urtea igaro ondoren, I. eranskinean aurreikusitako hegazkingintza-jardueraren bat garatzen hasten direnak, edo

b) 3 quater artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako periodo batekin lotuta, 3 sexies artikuluko 1. paragrafoaren arabera tona-kilometroen datuak emandako erreferentzia-urtearen eta periodo horretako bigarren urte naturalaren artean tona-kilometroen datuak urtean batez beste % 18 baino gehiago handitzen direnak,

eta jarduera, a) idatz-zatiaren arabera jarduera edo b) idatz-zatiaren arabera jarduera osagarria, beste aireontzi-operadore batek aurrez egindako jardueraren jarraipena izan gabe, ez osotasunean ez neurri batean.

2. 1. paragrafoaren arabera isuri-eskubideak esleitu dakizkiekeen aireontzi-operadoreek erreserba bereziko eskubideak doan jasotzeko eskaera egin dezakete, kudeaketaren ardura duen estatu kidearen agintaritzaren eskudunarengana joz.

Eskaerak 3 quater artikulua 2. paragrafoan aurreikusitako periodoaren hirugarren urteko ekainaren 30a baino lehenago aurkeztuko dira.

1. paragrafoko b) idatz-zatiaren arabera, aireontzi-operadore bati esleitutakoak ezingo du 1 000 000 isuri-eskubide baino handiagoa izan.

3. 2. paragrafoan adierazitako eskaerak:

a) tona-kilometroen datuak eman beharko dituzte, IV. eta V. eranskinen arabera egiaztatuta, 3 quater artikulua 2. paragrafoan adierazitako periodoko bigarren urtean aireontzi-operadoreak egindako I. eranskineko hegazkingintza-jarduerekin lotuta,

b) 1. paragrafoaren arabera isuri-eskubideak lortzeko irizpideak betetzearen probak ematea, eta

c) 1. paragrafoko b) idatz-zatian adierazitako aireontzi-operadoreen kasuan, hauek deklaratzeko:

i) 3 quater artikulua 2. paragrafoan ezarritako periodo batekin lotuta, 3 sexies artikulua 1. paragrafoa betez tona-kilometroen datuak eman diren erreferentzia-urtearen eta periodo horretako bigarren urte naturalaren artean aireontzi-operadoreak izandako hazkundearen ehunekotan,

ii) 3 quater artikulua 2. paragrafoan ezarritako periodoetako batekin lotuta, 3 sexies artikulua 1. paragrafoa betez tona-kilometroen datuak eman diren erreferentzia-

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

urtearen eta periodo horretako bigarren urte naturalaren artean aireontzi-operadoreak izandako hazkunde absolutua, eta

iii) 1. paragrafoko b) idatz-zatian adierazitako ehunekoa gainditzen duen tona-kilometroen hazkunde absolutua, 3 quater artikulua 2. paragrafoan aurreikusitako periodoetako batekin lotuta, 3 sexies artikulua 1. paragrafoa betez tona-kilometroen datuak eman diren erreferentzia-urtearen eta periodo horretako bigarren urte naturalaren artean.

4. Beranduenez 2. paragrafoa betez eskaera bat egiteko jarritako datatik sei hilabetera, estatu kideek Batzordeari aurkeztu beharko dizkiote paragrafo hori betez jasotako eskaerak.

5. Beranduenez 2. paragrafoa betez eskaera bat egiteko datatik 12 hilabetera, Batzordeari 4. paragrafoa betez aurkeztutako eskaerak egin dituzten aireontzi-operadoreei isuri-eskubideak doan esleitzeko erabili behar den erreferentzia-balioa erabakiko du Batzordeak.

6. paragrafoan adierazitakoa bete dadin, erreferentzia-balioa kalkulatzeko, erreserba bereziko isuri-eskubideen kopurua hauen baturaz zatitu behar da:

a) 3. paragrafoko a) idatz-zatia eta 4. paragrafoa betez Batzordeari aurkeztutako eskaeretan sartu diren 1. paragrafoko a) idatz-zatian aurreikusitako aireontzi-operadoreei dagozkien tona-kilometroei buruzko datuak, eta

b) 1. paragrafoko b) idatz-zatian adierazitako aireontzi-operadoreei dagokien ehunekoa gainditzen duen tona-kilometroen hazkunde absolutua, Batzordeari aurkeztutako eskaeretan adierazitakoa, 3. paragrafoko, c) idatz-zatiko iii) tartekiaren eta 4. paragrafoaren arabera.

